

## Egoitzako arreta zerbitzua adinekoentzat.

**Prestazio mota:** Bermatua.

**Baliabide mota:** Egoitzako arreta zerbitzua.

**Baliabidearen xedea:** Egoitza batean emandako zerbitzua, behar oinarritzakoak eta soziokulturalak asetzeko **arreta integrala** emateko.

**Onuradunak:** 65 urtetik gorakoak.

**Jasotzeko baldintzak:**

- Familia gatazka larria duen edo/ eta familia-sostengu egokirik ez duen pertsona dela aitortuta izatea, horretarako ezarritako baremoaren arabera.
- Eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea.

**Zerbitzua irekita:** Eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan.

**Zerbitzuaren intentsitatea:** Programa harrera eta lehen balorazio fasearekin hasiko da, eta banakakoaren arreta plan bat diseinatuz, laguntza beharrak, helburuak, bete beharreko jarduerak eta horien intentsitatea barne hartuta.

- Ostatua.
- Mantenua: bost otordu.
- Laguntza eta gainbegiratzea eguneroko bizitzako jardueretan: egunero.
- Zainketak: egunero.
- Arreta soziala: jarraipeneko, lau hilean behin.
- Arreta medikoa: jarraipeneko, sei hilean behin.
- Erizaintzako arreta: lanegun guztietan, astelehenetik ostiralera.
- Terapia okupazionala: lanegun guztietan, astelehenetik ostiralera.
- Gaitasun sozialak eta komunitatean integratzea: astean behin.
- Aisia eta denbora libreko jarduerak: astean behin.
- Familientzako laguntza: jarraipeneko, lau hilean behin.

**Emateko epea:** Hiru hilabete.

**Ordainketan parte hartzea:** Bai.

**Jarduteko eremua:**

Nafarroako Foru Komunitatea.

